

Bata bestearen erreskadan dator kigu aldarrikapenerako aukera paregabeak. Martxoaren 29ko era-kustaldi bikainaren ostean, bihar-munean kokaturik dugu gure agen-da eta, horri segida emanaz, gertuan dugu Maiatzaren Leheneko eguna. Egun berezia, esanguratsua lang-leontzat, aldarrikapena eta klase-borroka islatzen duen eguna, hain zuzen.

Oso testuinguru zailean egokitu zaigu aurtengo Maiatzaren Lehena, aurreko erronak xamurrak izan ez badira ere. Kapitalismorik gordine-nak lortu du botere politikoek, guzti-guztiekin, aberastasuna banatzeko tresnak are gehiago ahultzea eta kapitala metatzeko beste aldi batibide ematea. Europa erabiltzen ari dira hainbat erabaki zuritzeko: hiru erreforma laboral, negoziazio kolektiboko bi erreforma, pentsio murrizketak, gizarte-gastua zeharo moztea, arlo publikoan soldatak jaistea... Bata bestearen atzetik, horrelako politikek zegoen oreka apurra desagerrazti dute.

Horregatik, greba orokorrean plazaratu ditugun gure aldarrikapenak are eta premia beharrezkoagoak bilakatu dira: emplegu eta soldatuk defendatu; zerga politika justua exijitu; eskubide sozialak aitortuak izan daitezla; gizarte zerbitzuak indartzea; pribatizazioak ekiditea... Hots, politikak baztertu duen zeregin nagusiena errekuperatzea, aberastasuna modu egokiz birbanatzea, alegría.

Eta zuzeneko erronka lan erre-forman dugunez, ELAk aurre egingo dio. Badakigu negoziazio kolektiboa esparru sindikalizatuetan baino ez dela izango; lan-baldintzak iristen dugun antolakuntza sindikal mailaren araberakoak izango direla. ELAk gauza bat esan behar du: sindikatua inoiz baino beharrezkoagoa da; sindikatua da enpresarioaren alde bakarreko boterea geldiaraz dezakeen tresna. Nolanahi ere, alternatiba sindikalaren oinarria gure indar-erlazioa izan behar da, botere sindikala areagotzea. Antolakuntza, lan kolektiboa eta ekintza sindikala ditugu bide horretako bitarteko bakarrak. Horregatik diogu Maiatzaren Leheneko honetan "ezinbestez, sindikatua".



Gasteekaria

EDITORIALA

ELA recalcará el Primero de Mayo que la organización, el trabajo colectivo y la acción sindical son la única alternativa contra la ofensiva neoliberal

EL SINDICATO MÁS QUE NUNCA

El Primero de Mayo es una jornada de fiesta. Por ello nos juntaremos a las 11:30 en el Sagrado Corazón de Bilbao, nos manifestaremos, charlaremos con amigos y amigas a los que hace tiempo no vemos, iremos a comer al BEC, bailaremos en la fiesta post-comida y quien quiera –o pueda– seguirá con la fiesta.

Será un día para felicitarnos por la magnífica respuesta a la huelga general del 29 de marzo, ejemplo de solidaridad y de lucha colectiva. También será ocasión de homenajear a la militancia sindical y de los movimientos sociales que no acepta el consenso neoliberal y defiende una propuesta de contrapoder.

Pero el Primero de Mayo también es una jornada de reivindicación y de expresión de la lucha de clases. Un día para reivindicar que es imprescindible construir una alternativa social que defienda el empleo y los salarios, que exija un cambio en la política fiscal, el reconocimiento de derechos sociales, la no privatización de lo público y la defensa de la sanidad, educación, dependencia... En suma, el papel de redistribución de la riqueza que la política ha abandonado.

ELA es consciente de la dificultad del reto, pero lo asumimos. Para ello es imprescindible recalcar que el sindicato es más necesario que nunca; el sindicato es el instrumento para frenar la unilateralidad empresarial. La alternativa sindical, en cualquier caso, tiene que basarse en el fortalecimiento de nuestra correlación de fuerzas, ganando poder sindical. La organización, el trabajo colectivo y la acción sindical son los únicos instrumentos en ese camino.

El lema de este Primero de Mayo lo dice bien claro: *Ezinbestez, sindikatua. Más que nunca. ¡Nos vemos en Bilbo!*

*Maiatzaren Lehenean hitzordua
dugu Bilbon. Ez hutsik egin!*

Ezinbestez, sindikatua

Más que nunca



ELA
EUSKAL SINDIKATUA

MAIATZAREN LEHENA 2012

ELAK DEI EGITEN DIE EUSKAL ALDERDIEI MADRILEK IRAGARRI DITUEN MURRIZKETAK EZ BETETZERA

ELAk makina bat aldiz salatu ditu lan eta negoziazio kolektiboaren erreformaren ondorio larriak. Hori dela-eta, mezu argi eta zuzena utzi nahi izan zien euskal alderdiei apirilaren 12an Gasteizen egin zuen elkarretarantz: murrizketekin eta erreformarekin ados ez badaude, ez ditzatela bete. Bestela, ELAk idazkari-nagusi Adolfo

Muñozek aipatu zuenez, Rajoyren konplize izango dira. "Rajoyren aginduekin bat ez datozenak kontsekuente izan eta krisi politiko bat eragin behar dute. Hori da sinesgarri izateko bide bakarra. Ez du balio ezetz esan eta gero men egitea, Madrildik datorren oinarri-legea bete behar omen dela aitzaktzat hartuta".



ELAk Aberri Eguneko jaia baliatu nahi du bere militanteei esker ona adierazteko eta zorionak emateko herritar klaseentzako garai hain zail eta latzeta erakusten ari den adoreagatik. Krisi honetan askatasuna eta justizia soziala oinarri

dituen Euskal Herri subirano batekiko konpromisoak ahalegin eta militantzia sindikal gaitza eskatzen du, izan ere, langile-klaseak historian iritsitako lorpen laboral eta sozialak mehatxuean baitaude.

Hau da 2012ko Aberri Eguna dela-eta ELAren Nazio Batzordeak apirilaren 2an onartu zuen adierazpenaren laburpena. Adierazpen osoa ELAren web atalean dago eskuragarri, euskaraz eta gaztelera.

ABERRI EGUNeko ADIERAZPENA



Iazko Aberri Eguneak hona erreforma eta murrizketa gogorrak bizi izan ditugu, eta hauek langile-klasea ahludu eta pobretzea besterik ez dute eragin. Joan den ekainean negoziazio kolektiboaren erreforma bat onartu zen, eta bere helburua hain zuzen txirotea da, hitzarmenak zentralizatzuz. Erreformari esker bi sindikatu estatal nagusiak Euskal Herriko kanpo duten ezarpenaz balia daitezke gure herrian dagokien ordezkaritzat mailak uzten ez diena erabakitzeko. Horrela, UGTk eta CCOOek nortasun sindikal baztertzalea erakusten dute, eta ez dira gauza errespetatzeko euskal langileek beste sindikatu batzuekiko adierazten duten atxikipen handia.

Mariano Rajoyen gobernuak dekretuz eman duen azken erreforma laboralak, aurrekoek bezala, kontratazioa prekarizatzen du, lan-ibilibideak malgutzen ditu eta kaleratzeko zergatiak ugaltzearekin batera, merkatu egiten du. Honetaz gainera, erreformak negoziazio kolektiboaren egitura goitik behera aldatzan du. Aurrerantzean hitzarmenak ez dira alde bientzat, langile eta ugazabentzat, maila berean bete beharrekoak izango, azken hauetan erraztasun guztiak ematen baitzaizkie hitzarmenetako edukiak ez aplikatzeko. Neurriro honelburua begibistakoa da: krisia dagoeneko enplegu-erregulazio latz bat egiteko baliatu da (eta ziurrenik areagotu egingo da); orain, berriz, soldateik ekin behar zaie, bai zuzenean, bai lan-baldintzak goitik behera aldatuz. Beraz, erreforma neoliberal eta autoritario bat dugu hau.

Erreformekin batera, aurrekontu publikoen murrizketa ere eskubideen kontrako agenda sozioekonomikoan dago. Gogoratzeko modukoa da, bestalde, krisia eta murrizketak baliatzen ari direla ere mapa autonómicoa berzentralizatzeko eta homogeneizazio administratiboa gauzatzeko, aurrekontuen tutela eta zaintza medio. ELAk hau gure autogobernuari egindako onartu ezineko eraso gisa ikusten du.

GASTEIZEN, IRUÑEAN ETA MADRILEN, BERDINTSU

Gurean, aldundiek ere berdintsu jokatu dute, eta Gasteizko eta Iruneko gobernuak hirugarren urtez aurrekontuak murriztu dituzte. Gastu publikoaren murrizketa hauetan guztiok krisia areagotzen dute, langabezia eta babes gabezia sozial handiagoa dakarte. Diru-sarrerak gehitzeari uko egiteko erabaki dogmatikoak (horretarako azken urteetako zerga-erreformak berrikusi edota iruzurra jazarpenari ekin beharko

litzaiok) politikarik bidegabean eta antisozialenari eustea esan nahi du. Gastu publikoa murriztean krisiaren zama guztia klase xeheezi bizkarreratzen zaie, batik bat gazte-gastuaren premia handiena duten horiei.

Langile-klasearentzako egoera aski larria da, baina Euskal Herrian badugu pozteko arrazoiorik, ETAren bortizkeriarik gabeko aroan sartu baikara. Erakunde honek borroka armatuari behin betiko uzteko erabakia albiste ezin hobea da. Erabaki honen ondoren beste batzuk eterri beharko lirateke, Aieteko adierazpenak aipatzen duen moduan: gobernuak eskatzen zaie "gizartza armatuaren ondorioez soili aritzeko elkarriketak zabaltzeko". Haatik, espainiar Gobernuak ez dauka, antza, egoera berri hau kudeatzeko asmorik; hau ELAren iritziz ezin da onartu. Rajoyen gobernuak erabaki hura onetsi eta normalizazio politikorako prozesu ordenatu bat ahalbidetu beharko luke.

ELAk uste du orain giza-eskubideen esparruan urrats irmoak egin behar direla, batik bat presoen eskubideei dagokienez, baita biktimei buruzkoak ere. ELAk arbuiatu egiten du joan den ostegunez Espainiako Auzitegi Konstituzionalak hartutako erabakia, Parot izeneko doktrinari eustea erabaki baitu, neurri honen aurkako helegitea sartu zuten euskal preso gehienen kasuan. Militantzia politiko hutsaren ondorioz espetxeratu zitzuten pertsonak askatu egin behar dituzte, bestek Rafa Diez LABeko idazkari nagusi ohia. Horrelako urratsek eta beste batzuk gure herrian zauri larriak utzi dituen gatazkari jite gizatiarra goa emateko balio beharko lukete.

ZILEGI DA INDAR POLITIKO ETA SOZIALAK BILTZA

Atzera gabeko urratsak egin behar dira ere eskubide demokratikoei dagokienez, bortizkeriaren aitzakiaz larri urratu baititzute. Urteotan legez kanpo jarri dituzten erakunde politiko eta sozialak legalizatu behar dira. Halaber, eztabaidea politikoaren kriminalizazioa ere amaitu beharrekoa da. Iritzi desberdinak daude gure herriak izan behar duen barnerako zein kanporako erakuntzari buruz. Eta erabat zilegi da egungo estatus politikoa aldatzeko indar politiko eta sozialak biltzea. Hain zuzen, estatus horrek ELA ez du inondik ere asebetetzen.

Estatus horrekiko, beharrezko da gure herriaren burujabetzaren aldeko aldarrikapenak errealistak eta sinesgarriak izatea. Krisi eta murrizketa egoera hau

agabune ona dugu erakusteko, baita esparru instituzionalek ere, herri honek ez duela espainiar estatuaren azpisistema izan nahi. Esaterako, Mariano Rajoyk gidatzen dituen doikuntza-politikak ikusirik, Hego Euskal Herriko erabaki liteke autonomia-erkidego, diputazio eta udal guztiei exijituko zaien obedientziari uko egitea.

HAUTESKUNDEETAKO LEHIA ALDERDIKOIAK EZTABADA POLITIKOA KUTSATZEN DU

ELAren ustez, burujabetzak ez du etorkizunik izango baldin eta oraindian adierazpide subiranorik ez badago. Horregatik, nahiko genuke azken greba orokorrak isolatu duen gizarte-justizia gogo biziak euskal klase politikoan oihartzuna izatea, ekonomia behingoz politikaren menpe eta politika, interes orokorraren esanetara jartzeko eskari gisa. Iazko Aberri Egunez esan genuen politikak itxuraz bere buruak fama nola galtzen duen txalotzen zuela. Bada, gure ustez benetan kreditua emango lioke politikari, oro har, eta independentismoari, bereziki, estatuaren aurreko errebeldia edo desobedientzia ekintza batek, langile-klasaren aurka egiten dituen gehiegikeriak medio. Gure iritziz, autogobernuak batik bat klase xeheak defenditzeko izan behar du baliagarri.

Zoritzarrez, Euskal Herrian hasita dauden prozesu desberdinek eskatzen dituzten aliantzei buruz ez da gogoeta partekaturik egiten. Eta gauza bat begibista-ko da: prozesu eta borroka bakoitza (giza-eskubideak, demokrazia, burujabeza, gizarte-gatazka...) desberdina da, izatez, helburuei eta denborei dagokienez... horrenbestez, eskatzen duten aliantzetan ere hala beharko luke. Hain zuzen, hauteskundeetako lehia alderdioko eztabaidea politikoa eta aliantza-politikak nola kutsatzen dituen zaitasun handi bat euskal era-kundeentzat. Batik bat esparru abertzalean, amairik ez duen hauteskundeetako borroka hori, berez polarizazialea dena, oso intolerantea izan ohi da identitate politiko eta sindikal desberdinekiko, esaterako ELAren identitatearekiko.

ELA-REN EKARPENA ERAIKUNTZA NAZIONALERAKO

Bat egitearen erreferentziak, edo hobeto, bat egite desberdinen erreferentziak, garrantzi handiegia du herri eta langile-klase gisa ditugun erronkeko. ELA sindikatu bat da, sindikatu bat besterik ez, eta konpromisoa du subiranarekiko, demokraziarekiko eta giza-eskubideekiko. Sindikatu den aldetik, bere aliantzak definitzeko ardura dagokio, baita lan-munduan duen ezarpenak emandako zilegitasuna medio egin beharreko ibilibidea erabakitzeko ere. Hori dela-eta, ekainean mendeurreneko adierazpenean esan genuen legez, "ELAK deitoratu eta arbuiatu egiten ditu sarri egiten diren batasunerako deik, lan-munduan errealitate gatazkatsua ahazten duen lanotasunetik botatzen baitira, edota are mundu sindikala beste interes -ekonomiko edo politiko- batzuren menpe jartzetik, langileenak ez diren interesak. ELArentzat, lan munduan helburu eta nahiak ez dira, eta ezin dira izan, esparru sindikaletik at erabakitzeko kontu instrumentalak".

Erakunde abertzale batean biztanleria langile plural bat antolatzea da ELAren eraikuntza nazionalerako egiten duen ekarpenik berezienetako. Eta gure ustez krisi sistemiko une hau garai egokia izan liteke, baita lan-munduan ere, elkartasuna egunero eraikitzea, lantoki bakoitzetik abiatuta. Erronka honetxeri egin nahi dio aurre ELAk Aberri Egunez, eta hori da bere konpromisoa. Horregatik, ELAren bere militanteei dei egiten die mobilizazioari, borroka sindikalari eta lantoki bakoitzean antolatzeko lantegiari eutsi diezaioten.



400 delegados/as participaron en una concentración ante la Delegación del gobierno español para protestar contra los recortes y reformas de Rajoy, el 12 de abril en Gasteiz

"SI PENSÁIS DISTINTO NO HAGÁIS LO MISMO QUE RAJOY"

Unos 400 delegados/as participaron el 12 de abril en Gasteiz en una concentración ante la Delegación del gobierno español para protestar contra los recortes de Rajoy y la Reforma Laboral y de Negociación Colectiva. En el acto —en el que tomaron la palabra el secretario general de ELA, Adolfo Muñoz Txiki e Igor Eizagirre, secretario general de la Federación de Servicios Públicos—, se calificó la situación actual de "emergencia social", para pedir, a continuación, a los responsables políticos que no acepten los recortes anunciados en Madrid en materia social y de empleo.

El secretario general de ELA afirmó con contundencia que "aquellos —si los hay— que no estén dispuestos a asumir las directrices de Rajoy tienen que ser consecuentes y abrir una crisis política real; sólo así tendrán credibilidad. No vale decir no estoy de acuerdo y luego cumplir, con el argumento de que es una ley básica y estoy obligado a ello", dijo.

Muñoz reiteró la gravedad de la coyuntura socio-laboral que vivimos, para añadir, más tarde, que la reforma laboral va a hacer que el paro y la pobreza crezcan en Euskal Herria. "El paro va a aumentar y la clase política continúa sin reaccionar; sigue utilizando a Bruselas y a Madrid como coartadas para hacer siempre lo que manda el capital". "Todo eso —concluyó— nos lleva al colapso económico".

Finalmente, tras denunciar, una vez más, que "han hecho una reforma laboral y de negociación colectiva para atacar los salarios, para que la negociación sectorial no vincule", advirtió a los presentes de que el único camino que tiene la clase trabajadora es el de la lucha, y que sindicalizar los centros de trabajo va a ser la única garantía de blindaje de derechos. "Más que nunca tenemos que trabajar la correlación de fuerzas", animó.

"Krisia ongizate-estatuaren kontrako estatu-kolpe bat emateko darabilten aitzakia da. Gure eskubide eta lorpen sozialen kontra dato; kapitalismoari hatzparretatik kendu diogun guzti horren aurka".

CUMPLIR LO PACTADO



En la imagen Igor Eizagirre, secretario general de ELA-Gizalan durante su intervención. Detrás de Igor Eizagirre, de izquierda a derecha, Adolfo Muñoz, secretario general, y Begoña Vázquez, responsable de la comarca de Gasteiz.

Por su parte, Igor Eizagirre, secretario general de Gizalan, destacó en su intervención que priorizar el déficit y el pago de la deuda es la coartada para atacar los servicios públicos; un ataque —destacó— que no se limita a los trabajadores y trabajadoras de este sector sino que afecta al conjunto de la sociedad. "Plantean congelación salarial, que es pérdida de poder adquisitivo; plantean aumento de jornada a las 37,5 horas; la no cobertura de vacantes y OPEs con un objetivo muy claro: la destrucción de empleo público y marcar referencia a la baja de las condicio-

nes del sector público para la empresa privada", denunció.

Tal como hiciera Txiki, Eizagirre criticó, también, a los responsables políticos de unas Administraciones a los que se les llena la boca diciendo que no están de acuerdo con aplicar nuevos recortes en los servicios públicos y luego los llevan a cabo. "!Que dejen de mentir escudándose en que son decisiones de obligado cumplimiento. Si los aceptan son cómplices y tienen la misma responsabilidad que quienes dictan esas políticas", aseguró. En este sentido, el secretario general de

Gizalan recordó que los parlamentos de Gasteiz e Iruña aprobaron la jornada de 35 horas tras una larga lucha sindical y exigió el cumplimiento de lo acordado. "Existen razones competenciales, políticas y sociales para defender la aplicación de las 35 horas en el sector público en Hego Euskal Herria", afirmó con contundencia.

El responsable de Gizalan concluyó su intervención haciendo un llamamiento a la movilización y a la reivindicación. "Exigimos a nuestras Administraciones no sólo que no apliquen los recortes de Rajoy sino que, al contrario, apuesten más que nunca por el desarrollo de los servicios públicos en un contexto como el actual en el que son más necesarios que nunca para miles de familias y ciudadanos/as". "Si no es así —concluyó— les anunciamos que nos van a tener enfrente".

Esta jornada de protesta contra las medidas de Rajoy llevada a cabo por ELA en Hego Euskal Herria coincidió con la que también llevó a cabo por los mismos motivos la central sindical gallega CIG.

ARES Y SU EQUIPO DEBEN DIMITIR POR SU RESPONSABILIDAD POLÍTICA



ELA manifiesta, en relación a la muerte del joven Iñigo Cabacas, que más allá de las responsabilidades individuales que correspondan por esa acción concreta, la responsabilidad principal de lo acontecido es política y está localizada en el propio Consejero de Interior, Rodolfo Ares, y su equipo, que deben dimitir o, en su caso, ser cesados.

La asunción de responsabilidades no debe terminar en la búsqueda de chivos expiatorios que sirvan para evitar el análisis de porqué suceden estos hechos, ni tampoco para eludir esa responsabilidad política a la que nos referimos. Si así fuera sería un simple parche.

Los responsables del Departamento de Interior han desarrollado un modelo policial que ha justificado acciones como éstas, desproporcionadas, carentes del necesario equilibrio, y que, solo por fortuna, no han ocasionado desgracias como la de Iñigo en el pasado.

Ese modelo policial ha sido históricamente denunciado por nuestra organización sin que hayamos encontrado ninguna voluntad política para discutir esta deriva de la policía vasca, que está conllevo a un desarraigo con la sociedad a la que se debe. Por último, ELA quiere trasladar su más sentido pésame a la familia y allegados de Iñigo Cabacas.

**ELAk arrisku psiko-sozialak aipatu nahi ditu lan-
osasun eta segurtasunaren nazioarteko egunean**

"GERO ETA OKERRAGO"

2012ko apirilak 28
Lan-osasun eta segurtasunaren eguna



ELAk bi ekitaldi egingo ditu lan-osasun eta segurtasunaren nazioarteko egunaren harira. Iruñean –aprilaren 26an, osteguna– eta Gasteizen –aprilaren 27an, ostirala– antolatu diren bi jardunaldiak aipamen berezia egin du.

egindo diote arrisku psiko-sozialei. Lan osasun arduradun Leire Txakartegik nabarmentzen duenez, aurten ere badago zer salatu Apirilaren 28aren karira.

"Lan-siniestralitatea gehitzen ari da, lan-merkatuan gero eta jende aktibo gutxiago dagoen arren. Gaixotasun profesionalek eta lan-istripuek zergati estruktural berdina dute: lan prekarioa, neurrik gabeko azpikontratazio maila, lan-erritmo

itogarriak... Eta, urtero salatzen dugun bezala, guztiak irauten dute hauei aurre egiteko borondate politikorik ez dagoelako. Iza ere, horrelako borondateak patronalaren interesen aukako erabakiak hartzera behartuko bailuke".

Aurten arrisku psikosozialak aztertuko dira bereziki. Txakartegik honen zergatia azaltzen digu. "Hego Euskal Herrian iaz gertatu ziren ezbeharren %42 ez traumatikoak izan ziren, eta edonork daki istripu ez traumatikoek arrisku psikosozialarekin duten erlazio zuzenaren berri. (Lan-estresa, errearen edo burnout sindromea, jazarpen laborala edo mobbing-a, higadura profesionala, laneko bortizkeria...)".

Hainbat azterketak dioenez, lan-istripuen %34,35 inguru arrisku psikosozialekin lotuta dago. "Arrisku psikosozialak arazo sozial larria dira, baina ezkutuan diraute eta azalera daitezen ez dago inongo borondate politikorik. Aipatzeko da gaixotasun profesionalen koadroan ez dagoela jasota arrisku horiek eragindako inongo gaitzik. Hori dela-eta, arazo duten pertsonak auzitegietara jo behar izaten dute patratten duten gaitza aitor diezaieten, paradoxikoki lan-istripu gisa, hainbat epaitan era honetako gaixotasun batzuen jatorria lana dela ebazten bada ere".

Erreformaz erreforma, murriketaz murriketa, arrisku psikosozialak asko gehituko dira. "Ohartarazi beharrean gaude –gaineratzen du Txakartegik– lan-erreforma eta negoziazio kolektiboarena langile-klasearen osasun psikosozialerako arrisku handia izango dela. Iza ere kaleratzea erraztu eta enpresei lan-harremanaren baldintzak aldatzeko ahalmen handiagoa ematen baitie (soldatu jaitsiera, lan-baldintzen funtsezko aldaketa, mugikortasun geografiko zein funtzionala...). Horrek guztiak egoera okerto besterik ez du egindo".

ACTOS EN IRUÑEA Y GASTEIZ

ELA celebrará dos actos con motivo del Día Internacional de la Salud y Seguridad en el Trabajo. El primero será el jueves 26 de abril en la Escuela Navarra de Teatro de Iruña, a las 10:00. El segundo el viernes 27 de abril en Gasteiz, en el Palacio Europa, también a las 10:00.

El objetivo de este año es denunciar los riesgos psicosociales. Según diversos estudios, se estima que en torno al 34,35% de los accidentes laborales tienen su origen en riesgos psicosociales. Unos riesgos que, aunque constituyen un grave problema social, siguen estando ocultos y no existe ninguna voluntad política de que afloren.

- **ELAk bat egin zuen Parot doktrina salatzeko manifestazioarekin**

ELAk bat egin zuen apirilaren 14an *Parot doktrina* delakoa salatzeko Gernikako Akordioak Bilbon deitu zuen manifestazioarekin. ELAk salatzen duenez, Auzitegi Gorenak 197/2006 doktrinaren –'Parot doktrina'– inguruan egin berri duen irakurketa oso larria da, bultzada instituzional, politiko eta judiziala emanen baitio PPk eta PSOEk sinatutako itun antiterroristari. Zoritzarrez, itun hori oraindik indarrean dago eta ez dirudi aldatzeko asmoa dagoenik.

- **Hego Euskal Herrian 90.264 langabetuk ez du inolako langabezia saririk jasotzen**

Enplegu Zerbitzu Publikoaren zerrendetan izena emandako langabetuen kopurua 213.470 pertsonatikoa izan da 2012ko martxoan Hego Euskal Herrian, otsailean baino 2.196 gehiago eta duela 12 hilabete baino 16.614 pertsona gehiago. Langabezia tasa %15,7koa da, EB-27ko bataz bestekoa baino 5,5 puntu handiagoa (%10,2koa da 2012ko otsailean). Datu hauek agerian uzten dute, beste behin, gure sindikatuak behin eta berriz nabarmentzen dueña: Gobernu ezberdinak imposatzen ari diren murriketak eta erreformak langabezia eta pobrezia gehiago dakartzate. Hilero-hilero agertzen diren langabezia datuek arrazoa ematen digute.

ELAk nabarmendu nahi duenez, unean 90.264 pertsona langabe dago gurean inolako prestazioarik jasotzen ez dutenak; langabetuek jasaten duten babes sozial eza erabat gaitzesgarria da.

- **Dario Ansel presenta el libro "ELA en la segunda República"**

El historiador italiano Dario Ansel ha presentado su libro *ELA en la segunda República*. En ese periodo ELA vivió un fuerte crecimiento y renovación. Consecuencia de esa evolución sindicalista ELA se convirtió en un sindicato moderno, reivindicativo y autónomo políticamente. Ansel nos habla de todo eso en el libro.

www.ela-sindikatua.org

ELA astekaria

Barrainku 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66
Dep. legal BI-199-00

www.ela-sindikatua.org

Franqueo concertado
nº 08/207